BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1158

7/2014 DEKRETUA, otsailaren 27koa, Lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko kide bat aldatzeko dena.

Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 5. artikuluaren arabera, lehendakariak du sindikatuek eta enpresarien erakundeek Lan Harremanen Kontseiluan dituzten kideak izendatzeko eskumena, sindikatuek eta enpresarien erakundeek beren ordezkariak aukeratu ondoren. Bestalde, lege horren 6. artikuluaren arabera, kontseiluko kideen agintaldia bi urterako izango da; horrek ez du esan nahi, ordea, berriro ere aukeratu ezin direnik.

Dena den, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 6.2 artikuluak sindikatu erakunde eta konfederazioei eta enpresa konfederazioei aukera ematen die izendatutako kide titularrak edo ordezkoak aldatzeko.

Legezko ahalmen horren indarrez, Confebask-Euskal Enpresarien Konfederakuntzak Lehendakariaren uztailaren 5eko 11/2012 Dekretuari jarraikiz izendatutako kide bat ordezkatu du eta beste kide bat izendatzea erabaki du, konfederakuntzaren izenean kontseiluan aritzeko.

Ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Manuel Guerrero Igea jauna Lan Harremanen Kontseiluko kide titular izendatzea, Confebask-Euskal Enpresarien Konfederakuntzak aukeratu baitu, Juan Ramón Apezetxea Escudero jaunaren ordez aritzeko.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko otsailaren 27an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.